

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3696

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 16koa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta jakinarazten baitira Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko maiatzaren 25eko Aginduan ezarritako laguntzak. Aipatutako agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da dirulaguntzak emateko 2022ko ekitaldirako, udal-informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko geoEuskadi geoatariaren bidez.

2022ko ekainaren 3an, EHAAREN 107. zenbakian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko 2022ko ekitaldirako, udal-informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko geoEuskadi geoatariaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko uztailaren 5ean amaitu zen, hala baitago ezarrita dirulaguntzak ematea arautzen duen Aginduaren 6.1 artikuluan. Epe horretan, 30 eskabide jaso dira Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza honetan, eta ebazpen honen I. eranskinean daude denak adierazita.

Deialdia egiteko Aginduaren 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Balorazio Epaimahaia 2021eko uztailaren 8an eratu zen, jasotako eskabideak aztertu eta egiaztatzeako, kontuan hartuta 9. artikuluan xedatutakoa (esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa).

Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 200.0000 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 15. artikuluan zehazten duenez, diruz lagunduko da laguntza teknikoa kontratatzeagatik sortutako gastuen % 75, proiektu bakoitzerako 12.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontu-kreditua amaitu arte; eta BEZa edota bestelako zergak ezin izango dira diruz lagundu.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, eta horren ondorioz, 2022ko uztailaren 18an, 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Sailburuordetza honetan aurkeztu zuen esleipenerako proposamena, non adierazten baitu zein diren diruz laguntzea proposatu diren eskabideak, honakoak ere adierazita: udala, diruz lagundu daitekeen proiektua, lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren zenbateko proposatua.

Deialdia egiteko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoa betez eta horretarako eraturako Balorazio Epaimahaiak egin duen proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntzak ematea 2022ko ekitaldirako ebazpen honen II. eranskinean adierazitako udalei, bertan zehaztutako zenbatekoan. Hain zuzen ere, udal-informazio geografikoa hobetzeko eta, geoEuskadi geoatariaren bidez, Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko ematen dira dirulaguntza horiek.

Bigarrena.– III. eranskinean adierazitako eskaerak ukatzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa deialdia egiteko Aginduaren 18. artikuluan ezarritako epeetan eta moduan egingo dira.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztientzako jakinarazpen-balioa izan dezan, deialdia egiteko Aginduaren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 16a.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea,
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

I. ERANSKINA

JASOTAKO ESKAERAK

Udalerrria	Proiektua
Zumarraga	Zumarragako HAPO idazteko prestaketa-lanak.
Abadiño	Udalerriko bide publikoei buruzko ikerketa egitea eta txosten teknikoa idaztea.
Arakaldo	Hiri-kartografia eta sareen kartografia egitea.
Vitoria-Gasteiz	ETHSen oinarrien eguneratze eta birjartze osoa.
Gordexola	Udal-bide eta -pisten informazio geografikoa hobetzea eta biltzea.
Bilbao	Oinarrizko udal-kartografia sortzeko automatizazioa, GIS bidez zeharka ustiatzeko.
Olaberri	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Zuia	Hiri-kartografia eta sareen kartografia egitea.
Azkoitia	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Arantzazu	Landa-sare eta -bideei buruzko datuen digitalizazioa eta migrazioa.
Maruri-Jatabe	Bisore geografikoa eta GIS.
Errenteria	Udal-elementuen katalogoa eguneratu eta udal-informazio geografikoa kudeatzeko tresnak garatzea.
Güeñes	Informazio geografikoa hobetzea (eskuragarri dagoen datu-base kartografikoa harmonizatzea eta eguneratzea).
Ataun	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Ermua	Udal-elementuak katalogatzea, GeoEuskadira transferitzeko eta baliabide geoespazialean integratzeko.
Asteasu	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Amoroto	Informazio geografikoa hobetzea eta udalaren suite geoteknologikoa garatzea.
Etxebarri	Udalerriko irisgarritasun-geruzak garatzea eta GeoEuskadi online bisorean integratzea.
Errigoiti	Informazio geografikoa hobetu eta berau sortu, mantendu eta argitaratzeko baliabide geografikoak eraikitzea.
Legorreta	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Aramaio	Kale-izendegiaren eguneraketa eta GIS egitasmoaren garapena.
Iurreta	HAPOrako dagoen kartografia eguneratzea.
San Millán / Donemiliaga	Asparrena-Donemiliagako industrialdeko eta Okiturri poligonoko saneamendu-sareak inbentariatzea eta digitalizatzea.
Laudio	Udal GIS.
Asparrena	Asparrena-Donemiliagako industrialdeko saneamendu-sareak inbentariatzea eta digitalizatzea.
Ordizia	Udal-elementuak katalogatzea, GeoEuskadira transferitzeko eta baliabide geoespazial propioetan integratzeko.
Amurrio	Informazio geografikoa hobetzea eta kale-izendegia eguneratzea.
Abaltzisketa	Udal-mugarteko informazio geografikoa ebaluatzea eta hobetzea.
Beasain	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarrizko kartografia eraikitzea eta mantentzea.
Getxo	Udalerriko zenbait eremuren jasotze takimetricorako laguntza teknikoa.

II. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKAERAK

Udala	Proiektua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
Zuia	Hiri-kartografia eta sareen kartografia egitea.	8,1	9.339,00
Amoroto	Informazio geografikoa hobetzea eta udalaren suite geoteknologikoa garatzea.	8,1	9.000,00
Errigoiti	Informazio geografikoa hobetu eta beratu sortu, mantendu eta argitaratzeko baliabide geografikoak eraikitzea.	7,1	5.812,50
Arakaldo	Hiri-kartografia eta sareen kartografia egitea.	7,3	7.405,50
Vitoria-Gasteiz	ETHSen oinarrien eguneratze eta birjartze osoa.	7,1	12.000,00
San Millán / Donemiliaga	Asparrena-Donemiliagako industrialdeko eta Okiturri poligonoko saneamendu-sareak inbentariatzea eta digitalizatzea.	6,6	10.125,00
Asparrena	Asparrena-Donemiliagako industrialdeko saneamendu-sareak inbentariatzea eta digitalizatzea.	6,6	11.175,00
Maruri-Jatabe	Bisore geografikoa eta GIS.	6,3	4.950,00
Errenteria	Udal-elementuen katalogoa eguneratu eta udal informazio geografikoa kudeatzeko tresnak garatzea.	6,1	10.162,50
Etxebarri	Udalerriko irisgarritasun-geruzak garatzea eta GeoEuskadi online bisorean integratzea.	6	11.235,00
Olaberri	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,9	12.000,00
Ermua	Udal-elementuak katalogatzea, GeoEuskadira transferitzeko eta baliabide geoespazialekin integratzeko.	5,85	10.912,50
Azkoitia	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,8	12.000,00
Ataun	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,8	12.000,00
Asteasu	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,8	12.000,00
Güeñes	Informazio geografikoa hobetzea (eskuragarri dagoen datu-base kartografikoa harmonizatzea eta eguneratzea).	5,8	3.097,50
Legorreta	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,7	11.158,50
Beasain	Datum planimetricoa eta altimetricoa aldatzea, oinarritzko kartografia eraikitzea eta mantentzea.	5,7	12.000,00
Getxo	Udalerriko zenbait eremuren jasotze takimetricoa.	5,5	11.145,00
Iurreta	HAPOrako dagoen kartografia eguneratzea.	5,45	3.375,00
Abaltzisketa	Udal-mugarteko informazio geografikoa ebaluatzea eta hobetzea.	5,4	9.107,00
Guztira			200.000,00

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAERAK

Udala	Dokumentua	Puntuazioa	Ukatzeko arrazoa
Zumarraga	Zumarragako HAPO idazteko prestaketa-lanak.	5,3	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Aramaio	Kale-izendegiaren eguneraketa eta GIS egitasmoaren garapena.	5,25	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Ordizia	Udal-elementuak katalogatzea, GeoEuskadira transferitzeko eta baliabide geoespazial propioetan integratzeko.	5,2	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Gordexola	Udal-bide eta -pisten informazio geografikoa hobetzea eta biltzea.	5,2	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Amurrio	Informazio geografikoa hobetzea eta kale-izendegia eguneratzea.	5,1	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Laudio	Udal GIS.	5	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Bilbao	Oinarrizko udal-kartografia sortzeko automatizazioa, GIS bidez zeharka ustiatzeko.	5	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Abadiño	Udalerriko bide publikoei buruzko ikerketa egitea eta txosten teknikoa idaztea.	5	Aurrekontu-kreditua amaitu da
Arantzazu	Landa-sare eta -bideei buruzko datuen digitalizazioa eta migrazioa.	4,5	Ez du gutxieneko nota lortu